



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urtarrilaren 14a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen da DBH-Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako “Balio Zibikozko eta Etikozko Hezkuntza”ren eta “Geografia eta Historia”ren irakasgaietan sar ditzan gure herriko oroimen historiko eta demokratikoari buruzko hezkuntza-edukiak. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da bere jarrera azal dezan eta Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen interesak defenda ditzan, neurriak hartuz. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia eta Gizarte Kontseiluarekin batera lan egin dezan, plan urgente bat prestatzeko, familiei gizarte- eta lan-estaldura eman ahalko dieten neurriak jasoko dituen, covidagatik bakartuta dauden adingabeen eta mendeko pertsonen zaintza-lanei ekin ahal izateko. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bipil errefusatzeko erabakia hartu du. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten baitu Tuterako bizilagun Sararen hilketa, eta bere elkartasuna adierazi nahi baitie hildakoaren familiari eta ingurune hurbilari. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoari eta 2021erako plangintzari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (12. or.).

- Galdera, 2019-2023 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren 2021erako plangintzari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (13. or.).
- Galdera, joan den 2021eko abenduaren 22ko lehendakari-biltzarrean Nafarroak izandako jarrerari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, datu ofizialetan autodiagnostiko-probak COVID-19ko kasu bezala jakinarazteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, COVID-19aren autodiagnostiko-proben emaitza positiboan jakinarazpenean Datuen Babesari buruzko Legea urratzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Europako funtsen kudeaketarako eraturako batzorde delegatuaren bilereari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Europako funtsen kudeaketarako eraturako konferentzia ekonomiko enpresarialaren bilereari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Estatuak Europako funtsen banaketan Nafarroari orain arte esleitutako 204 milioi euroen xehakapenari buruzkoa, departamentuen eta proiektuen arabera. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan Europako funtsen kudeaketari begira egindako interes-adierazpenei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, departamentuak migratzaileen artean gaztelania edo euskara ikasteko 2021ean zehar abian jarri dituen programei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik N-121-A errepidea, Endarlatsa eta Irun artean, hobetzeko lanen ezaugarriak eta jabetza-, erabilera- eta titulartasun-baldintzak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenean jasotako konpromisoari buruzkoa. Isabel Olabe Ballarena andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heldu diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuaren xedapen gehigarri bakarra betetzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Gobernu Irekiaren Atarian Europako funtsen kudeaketari buruz informatzeko gune bat irekitzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Ponentzia, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren. Txostena bukatzeko epea luzatzea (22. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2021eko abenduaren 22an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI DA:

1. Xedatzea Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin. (10-21/LEY-00014).

2. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2022ko otsailaren 7ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru lege proiektu horri.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

Foru Lege proiektua, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENEA

Abereen gaixotasun kutsagarriek ondorio latzak izan ditzakete abereentzat eta abeltzaintzat, baita ekonomian ere. Era berean, osasun publikoari eta elikagaien segurtasunari ere eragin diezaioke. Europar Batasunak 2007tik hasita erabaki zuen estrategia berri batekin jokatzeko abereen osasunaren arloan, "Aurre hartzea, sendatzea baino hobea" dioen printzipioa arauen garapenerako oinarritzat hartuz. 2016/429 Erregelamenduak, abereen osasunari buruzko Europako legea deitutakoak, norabide horretan lanean segitzeko beharra indartzen du.

Prebentzioari heltzeko garaian, baldintza nagusietako bat abeltegien kokapena eta diseinua da. Abeltegia kokatuta dagoen eremuko abere-dentsitateak lotura du eritasun kutsagarriak izateko arriskuarekin. Hori dela eta, administrazioak araudi bat ezarri behar du, abeltegien gehieneko neurriak eta abeltegien arteko distantzia arautzeko eta, horrela, abere-dentsitatea mugatzeko. Jarduketa horrek apalduko du eritasunak zabaltzeko arriskua, erraztuko du eritasun fokuren bat detektatzen denean hura kontrolatu eta desagerrarazteko lana, eta ondorioak gutxituko ditu.

Horrenbestez, ustiatgien neurriei mugak ezarri behar zaizkie, horren bidez eta abeltegien arteko distantzietan buruz 31/2019 Foru Dekretuan araututakoari esker posible izan dadin abere edo ustiategi kopuru handiaren kontzentrazioa saihesteko moduko abere-dentsitate egokia zehaztea, izan ere, kontzentrazioak nabarmen zailtzen du infekzio prozesuen kontrola.

Abereen Osasunari buruzko egungo Foru Legeak 28. eta 29. artikuluetan aipatzen ditu elementu horiek: distantziak eta abere-dentsitatea.

Arau honek 28. artikulua aldatzen du eta abeltegiaren gehieneko neurriak ezartzen dituen eranskin bat gehitzen du.

Horrez gain, 39. artikulua aldatzen du, abeltegari ematen ahal zaion gehieneko kalte-ordainaren zenbatekoa mugatzeko, ustiategi handiek osasun arriskuen aurrean prebentzio neurriak hartzea eta erantzunkidetasuna sustatzeko helburuarekin.

Era berean, bosgarren xedapen gehigarria gehitu behar da, foru lege honek indarra hartzen duenean bertan ezartzen diren gehieneko mugak gainditzen dituzten ustiategiei buruzkoa. Beharrezkoa da zehaztea ezen une horretan lehentasuna izanen duela, ondorio guztietarako, araututako distantziari eta neurriei dagokienez, une horretan indarra duten ingurumen lizentzietan jasota dagoenarekin bat. Hori dela eta, ustiategi horiek lege berriaren baldintzak bete beharko dituzte, handitze eta distantzietarako aplikatu behar zaizkienak.

Azkenik, maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legeak gehitutako hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da; xedapen horren bidez 2022ko maiatzaren 30era arteko etenaldia ezarri zen 1.250 AzLU baino gehiagoko behi-aziendaren abeltegiak ezarri edo handitzeko abeltzaintzako eskaerak onartu eta baimen berriak emateko. 28. artikulua aldaketak ere mugatzen ditu ustiategien neurriak lege berriak indarra hartzen duenetik aurrera eta, beraz, ez dago etenaldi horren beharrik. Hala ere, aipatu behar da nola gelditzen diren tramitatu zain dauden eskaerak, honen bidez ezartzen den gehieneko abere edukiera berria gainditzen duten behi-aziendaren ustiategiak baimendu edo handitzeak, eta, horregatik, bidezkoa da hirugarren xedapen iragankor hori aldatzea.

Artikulu bakarra. Arau honek indarra hartzen duenetik aurrerako ondorioekin, Nafarroako abere

osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen manu hauek, jarraian ematen direnek, testu hau izanen dute:

Bat. 28. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“28. artikulua: Distantziak eta gehieneko neurriak:

Eritasunak zabaltzea eta horien ondorioak ekiditeko prebentzio neurri gisa:

1. Abeltegiek erregelamenduz ezartzen diren distantziak gordeko dituzte bai haien artean bai haietatik abere kontzentrazioetarako instalazioetara eta abeltzaintzaren arloko jarduera agroindustrialeta edo haiekin lotutakoetara bitarte daudenak. Distantzia horiek zehazteko, kontuan hartuko dira inguruabar geografikoak eta abere espezieen ezaugarriak, ustiategiaren neurria, ustiategi mota eta arrisku epidemiologikoa.

2. Abeltegietarako gehieneko neurri batzuk ezartzen dira, ustiategi berrien edo orain daudenen handitzeen neurriak ez daitezen izan foru lege honen 1. eranskinean ezartzen diren gehienekoak baino handiagoak”.

Bi. 39. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Agintari eskudunak animalia hiltzea nahitaezkozat deklaratu gero, kalte-ordaina emanen da, indarrean dauden arau eta baremoen arabera. Gehenez ere ustiategi bakoitzak 1.500.000 euroko kalte-ordaina jasoko du, gaixotasun hauen kontrako borroka, kontrol edo desagerrarazteko programa nazionalen barruan abereak hiltzeagatik: behi-aziendaren tuberkulosia, behi-aziendaren bruzelosia, ardi- eta ahuntz-aziendaren bruzelosia, mihi urdina eta entzefalopatia espongiforme kutsakorrak”.

Hiru. I. eranskin berri bat gehitzen da, testu honekin:

I. ERANSKINA

Abeltegien gehieneko neurria (AzLU edo toki kopuruaren arabera)

Ustiategiaren neurria	AzLU (1) / tokiak
Txerri-azienda	864 AzLU
Broiler oilaskoak eta hegaztiak oro har	300.000 toki
Arrautzetarako eta hazteko oiloak	300.000 toki
Ugalketarako oiloak eta haien haztea	60.000 toki
Kanpora irteten diren hegaztiak	50.000 toki
Galeperrak	600.000 toki
Esnetarako behiak	1.250 AzLU
Haragitarako behiak (2)	1.250 AzLU
Esnetarako ardi eta ahuntzak	6.000 ugaltze-abere
Haragitarako ardi eta ahuntzak	8.000 ugaltze-abere
Zaldiak	1.250 AzLU
Untxiak	600 AzLU
Erleen kokalekua (3)	200 erlauntza
Espezie bat baino gehiago dituzten ustiategiak	1.250 AzLU

(1) AzLU. Koadro honetako AzLUak kalkulatzeko, aintzat hartuko dira 31/2019 Foru Dekretuaren 1. eranskineko AzLUen baliokidetzak.

(2) Zezenketetarako azientaren ustiategiak barne.

(3) Gehieneko neurriak erleen kokalekuenak dira, baina ustiategi batek berak kokaleku bat baino gehiago izan ditzake.

Lau. Bosgarren xedapen gehigarri bat gehitzen da, eta testu hau izanen du:

“Bosgarren xedapen gehigarria. Ezarritako gehieneko mugak gainditzen dituzten ustiategiak.

Arauak indarra hartzean ezarritako gehieneko neurriak gainditzen dituzten abeltegiei, indarrean duten ingurumen lizentzian aurreikusitako neurria aitortuko zaie abeltegiaren gehieneko neurri gisa. Ezin izanen dute gehieneko neurri hori handitzea dakarren aldaketarik egin instalazioan, ez eta ekoizpenaren orientazioan ere”.

Bost. Hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Abeltegiak baimentzeko edo abeltegien aldaketak baimentzeko eskaerak, tramitazioan daudenak.

1.250 AzLU baino gehiago dituzten behi-azientaren abeltegiak jarri edo handitzeko abeltzaintzako baimenetarako eskaerak, 2021eko maiatzaren 20a baino lehen aurkeztu eta maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legea aplikatuta tramitazioa etenik dutenak, aurrerantzean tramitatuko dira haien ingurumen lizentziaren eskaeran aurreikusita zeuden neurrien arabera, eta aplikatuko zaie eskaeraren egunean indarra zuen araudia”.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen da DBH-Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako “Balio Zibiko eta Etikozko Hezkuntza”ren eta “Geografia eta Historia”ren irakasgaietan sar ditzan gure herriko oroimen historiko eta demokratikoari buruzko hezkuntza-edukiak.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen baita DBH-Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako “Balio Zibiko eta Etikozko Hezkuntza”ren eta “Geografia eta Historia”ren irakasgaietan sar ditzan gure herriko oroimen historiko eta demokratikoari buruzko hezkuntza-edukiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Berriki argitaratu da DBH-Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaspenak ezartzen dituen Errege Dekretuaren zirriborroa.

Balio zibiko eta etikozko hezkuntzaren irakasgaiari dagokionez, gaitasun zehatzei buruzko atalean (111. orrialdea) honako hau esaten da:

«(Bigarren gaitasun zehatza) 2. Arau eta balio zibiko eta etikoen arabera egitea eta elkarreragitea, horrek komunitate-bizitza eraentzeko duen garrantziaren aitortpen arrazoitutik eta hori testuinguru desberdinetan modu justifikatuan aplikatuzetik abiatuta, xede harturik elkarbizitza baketsu, begirunetsu, demokratiko eta guztion ongiarekin konprometitua egonen den bat”. Bigarren paragrafoan honako hau dio: «Hemen azpimarratu beharrekoa da zeinen garrantzitsua den gure erreferentzia-esparru zibiko eta etikoa osatzen duten printzipio eta balioei zor zaien errespetua oinarritu eta sustatzea; adibidez, solidaritateari, gutxiengoenganako errespetuari eta gizon eta emakumeen berdintasun gauzatuari; bai eta ikasleen artean sustatzea ere kultur eta natur ondarearen zaintza, oroimen demokratikoa, boluntariora eta elkartegintza; eta nabarmentzea zergen balio eta garrantzi soziala, bai eta Estatuak, haren erakundeek eta beste nazioarteko erakundeek nahiz erakunde sozialek bakearen, segurtasunaren, bakearen aldeko lanaren eta nazioarteko lankidetzaren sustapenari eginiko ekarpenarena».

Ebaluazio-irizpideei buruzko atalean (114. orrialdea) honako hau esaten da:

«2.5. Gizarte-ongizateari ekarpen irmoa egitea jarrera propioa, esplizitua, informatua eta etikoki funtsatua hartuz giza eskubideen balioari eta pertinentziari buruz, dibertsitate etniko-kulturalarekiko errespetuari buruz, ondasun publiko globalen estimuari buruz eta zergen balio sozialaren hautemateari buruz; halaber, ekarpena egitea gure herriaren historia demokratikoari eta zuzenbide-estatuari eta haren erakundeek, nazioarteko erakundeek, elkarte zibilei eta Estatuako segurtasun-indar eta kidegoei, haiek bakea eta segurta-

sunak lortzeko eta herrien eta pertsonen arteko solidaritaterako dituzten eginkizunetan».

Halaber, oinarrizko jakintzetan, honakoa esaten da:

«– B puntua. Gizartea, justizia eta demokrazia. Hor, “politika” atalean, besteak beste aipatzen da oroimen demokratikoa. 115. orrialdea.

Bestetik, Geografia eta Historia irakasgaiari dagokionez, gaitasun zehatzei buruzko atalean, bosgarrenean esaten da (5. Kritikoki aztertzea planteamendu historiko eta geografikoak, eta esplikatzea sistema demokratikoen eta erkidegoko bizitza arautzen duten printzipio konstituzionalen eraikuntza, gure elkarbizitza-esparruak berezko dituen betebeharrak eta eskubide propioak ere barneratuz, herritarren partaidetza eta gizarte-kohesioa sustatzeko):

“Konstituzioa lehenaldi hurbileko une jakin baten, demokraziarako Trantsizioaren, emaitza ez ezik, denboran zeharreko ibilbide luzeago batena ere bada, barne hartzen dituen kultura politiko ezberdinetako mugimendu, ekintza eta gertakariak, ekarpena egin dutenak egungo sistema demokratikoa osatzen lagundu duten ideiak eta balioak irimotzera. Hortaz, bere baitan biltzen du oroimen demokratikoaren errekonozimendua». Pg. 157

Ebaluazio-irizpideei buruzko atalean (hirugarren eta laugarren mailak), 5. gaitasun zehatzean honakoa jasotzen da:

«5.1. Erantzukizunak, eskubideak eta betebeharrak ezagutu, baloratu eta egikaritzea eta horien garapen eta baieztapenaren alde jardutea, gure ordenamendu juridiko eta konstituzionala ezagutzuz, gure oroimen historikoa eta gizon-emakumeek horretara eginiko ekarpena ulertuz eta balioan jarritzuz, eta gure balio konstituzionalak aldeztuz». 168. or.

Oinarrizko jakintzetan, ehun ingururen artean, blokearen amaieran agertzen da “Legea kontratu sozial bezala. 1812ko Konstituziotik 1978ko Konstituziora. Arau-ordenamendu autonomikoa, konstituzionala eta nazioaz gaindikoa, herritartasuna

egikaritzeko eskubide eta askatasunen garapenaren berme-emaitza bezala. Oroimen demokratikoa» (172. or.), eta esaten da:

«– Demokraziaren eraikuntzako harreman multikausalak eta totalitarismoaren jatorria: askatasunaren, berdintasunaren eta giza eskubideen aldeko mugimenduak. Gizarte-mugimenduen jarduna mundu garaikidean. Eboluzio- eta inboluzio-prozesuak: iraganari buruzko interpretazioaren ikusmolde emantzipatzailea.

– Nazioarteko harremanak eta XX. mendearen lehen erdialdeko gatazken eta indarkerien azterketa kritikoa eta konparaziozkoa (171. or.).

– Mugimendu feministen eta sufragisten jarduna genero-berdintasunaren aldeko borrokan». (172. or.).

Aipatu ere egin gabe geratzen dira funtsezko deritzegun zenbait afera, hala nola II. Errepublikari, diktadurari, gerra zibilari, errepresio frankistari edo borroka antifrankistari buruzko edukiak.

Salaturiko hutsune horiek guztiek arduragabekeria instituzional nabarmena agertzen dute, frankismo soziologiko horrek hauspotzen duen eskolarloko memorizidua zuzitzen dutenak. Egungo neofaxismoaren gorakadan frankismo horrek izan duen loraldiak badirudi harritu egiten gaituela, horren zuntzak LOGSE, LOE, LOMCE eta egungo LOMLOEko curriculumetako isilune eta hutsuneei bidez ehuntzen aritu ez bagina bezala.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra talde parlamentarioak honako erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen du DBH-Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Balio Zibikoako eta Etikozko Hezkuntzaren eta Geografia eta Historiaren irakasgaietan sar ditzan gure herriko oroimen historiko eta demokratikoari buruzko hezkuntza-edukiak.

Iruñean, 2021eko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere jarrera azal dezan eta Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen interesak defenda ditzan, neurriak hartuz.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bere jarrera azal dezan eta Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen interesak defenda ditzan, neurriak hartuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bere jarrera azal dezan eta Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen interesak defenda ditzan, neurriak hartuz

Erakunde eta eragile ezberdinek eginiko azterlan anitz dago, ebaluazioa egiten dutenak, ondorioak aztertzen dituztenak eta hobekuntza-proposamenak egiten dituztenak duela zenbait hilabetetatik nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreak ekoizpen-kostuak direla-eta bizi duen krisi larriari aurre egiteko. Horretarako, Navarra Sumatik proposamen-multzo bat egiten dugu, Europako beste erregio batzuek jadanik onartuta dauzkaten neurriak jasotzen dituztenak.

Azterlan horietan frogatzen da, zenbait iturriren bitartez, energia-kostuen berebiziko gorakada (B gasolioa, elektrizitatea...), azientzarentzako pentsu eta bazkarena, haziena, ongarriena, fitosanitarioe-

na, plastikoena eta gainerako intsumoena. Horietatik deigarriena elektrizitatearena da, duela urtebetekoa halako bost bihurtu baita; edo ongarriena, % 280 baino gehiagoko igoerarekin. Esate baterako, urearen kotizazioa 273 €/Tm-koa izan zen 2020ko abenduan; eta, 2021eko abenduan, 924 €/Tm-koa.

Hori guztia, gainera, ekaitz perfektu bat da, ekoizpena jaitzaraziko duena baldin eta prezioek ez badute erantzuten kostu-igoera konpentsatzeko edo normaltasuna ez bada berreskuratzen; eta ekaitz horren ondorioak izugarrikoak izanen dira, kontsumitzailea prezioaren eta kopuruaren aldetik ukituko baitute.

Afera horri ekiteko unea dugu. Problema orokortua da Espainian, eta ekintza koordinatua behar du. Ongarri-gaiak inportatu egiten dira; pentsetarako lehengaietan defizitarioak gara; beste hainbeste edozein energia-motatan...

Ekoizpen-kostuen gorakada horren aurrean, Navarra Sumak Nafarroako Gobernuari neurri-multzo bat proposatzen dio, kostu-gorakada horrek Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiattegietan duen inpaktua samurtzea xede dutenak; era berean, Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari exijitzaion Foru Komunitatearen eskumenekoak ez direnen aplikazioa.

Proposatutako neurriek produkzio-kostuen gorakada neurrigabearen ondorioak samurtzen lagunduko lukete, baina ez lirakeke hain beharrezkoak izanen baldin Espainiak AICA-Elikadura Informazio eta Kontroleko Agentziaren bitartez Elikakatearen Legea aplikatuko balu edo Nafarroako Gobernuak "in vigilando" balego, sektoreak exijitzen dion bezala, ekoizleek beren kostuak elikakatearen hurrengo katebegiei jasanarazteari begira daukaten negoziatze-ahala indartzeko, zeina ez baita betetzen ari gaur egungo araubidearekin.

Arazoaren adibide argia da litro bat esne ekoiztearen batez besteko kostua 0,35 eurokoa izatea, Nekazaritza Ministerioaren arabera. Ustia-leku batzuetan 0,40 euroraino iristen da. Alabaina, abeltzaina 0,31tik 0,33 eurora ari da kobratzen litroko. Horrenbestez, abeltzainak produkzio-kostuen azpitik ari dira saltzen, eta horretan ez dago ezer egiten ari den gobernurik, dumping behartu

baten kasu ageriko batean. Laguntza eta baliabide propioen eta/edo konpartituetako diru asko ari dira bideratzen produkzio-sistema baldintzatzen eta mugatzen duten politiketara, baina krisi-egoera honetan gutxi da nekazarien eta abeltzainen iraupena bermatzera bideratzen dena eta, beraz, elikagai osasungarri eta seguruetara bideratzen dena, edo landa-eremuetan populazioa finkatzera bideratzen dena.

Navarra Sumatik premiatzen dugu talka-plan bat egin dadin, laguntza-sail bat jasoko duena, salbuespen gisa, eta egungo egoera zaintzapean izanen duena harik eta egungo krisia eta produkzio-kostuen ezegonkortasuna oneratzen den arte.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

– Pentsu-tona bakoitzeko 100 euroko laguntza ematea lehentasunezko azienda-ustialekuentzat.

– Hobekuntza fiskalak ezartzea kostu-gorakadari aurre egiteko, honakoan dautzanak: tributazioetik salbuesitako kopuruaren minorazioa % 45era igotzea, Nekazaritza Politika Erkideko lehen zutabeko dirulaguntzetarako salbuespena % 50etik % 75era igotzea, halaber kendurik 20000 euroren muga, etekin horren minorazioan amortizazioak sartzeko sistema sinplifikaturako, eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta oihan-jardueren BEZa konpentsatzeko tasa bakar gisa % 14 ezartzea.

– Lehentasunezko edozein nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiren elektrizitate-tarifagatikoko hobariak ezartzea. Honakoan dautza: fakturaren kostuagatik gorakadaren % 80, erreferentzia gisa azken hiru urteak harturik.

– Lehentasunezko edozein nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiren elektrizitate-tarifagatikoko

hobariak ezartzea, fakturaren kostuagatik gorakadaren % 80koak, erreferentzia gisa azken hiru urteak harturik. Horrez gain, A gasolio hobaridunaren egungo sistema mantentzeko konpromisoa.

– Titular bakarra emakumezkoa duten lehentasunezko ustiategientzako zuzeneko laguntzen ematea % 5 igotzea.

– Administrazio eskudunei exijitzea Elikakatearen Legea bete dadila, administrazio horiek ofizialki ezarriko kostu-prezioak, kontratu-betebeharrak eta prezio-babesa bermatze aldera, ekoizleek eta katearen gainerako katebegiek ez dezaten dumpingik egin. Arau-haustek eta jardun desleialak zaintzea.

– Galeradun-salmenta balizkoak konpentsatzea.

– Hitzarmen bat onets dadila finantza-entitateen eta Nafarroako Gobernuaren artean, abal publikodun finantzaketa-lerroak ezarriko dituen, baldintza-berdintasunez, Nafarroan azken 5 urteetan zehar erregistroan alta emanda dauden lehentasunezko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategientzako ICO kredituekin.

– Karga-tasa bat aplikatzea okelari eta edonolako landare-produktuei, inportatuak izanik nafar ekoizpenarekin lehian daudenak, nafar produktuek lehiakortasun bidezkoagoa eta errentagarritasun-marjina hobea izan ditzaten.

– Ministerioari exijitzea urearen eta amonionitratoaren inportazioak 2019az geroztik kargatzen dituzten aduana-zergak bertan behera uztea edo, bestela, haiek konpentsatzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia eta Gizarte Kontseiluarekin batera lan egin dezan, plan urgente bat prestatzeko, familiei gizarte- eta lan-estaldura eman ahalko dieten neurriak jasoko dituen, COVIDagatik bakartuta dauden adingabeen eta mendeko pertsonen zaintza-lanei ekin ahal izateko.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ekonomia eta Gizarte Kontseiluarekin batera lan egin dezan, plan urgente bat prestatzeko, familiei gizarte- eta lan-estaldura eman ahalko dieten neurriak jasoko dituen, COVIDagatik bakartuta dauden adingabeen eta mendeko pertsonen zaintza-lanei ekin ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, urtarrilaren 20ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ikastetxeetako birus-hedapena intzidentzia oso altua izaten ari da seigarren olatu honetan. Izan ere, abenduaren amaieran 2000 eskola-ikasle baino gehiago egon dira ikastetxeetatik at geratu behar izan dutenak berrogeialdia beren etxeetan egin eta ikastetxe horietako kutsatzea gerarazi ahal izateko. Egoera horrek familia asko behartzen ditu lanera ez joatera, zaintza-lanez arduratu ahal izateko.

Funtzionarioen artean aukera dago nahitaezko eginbehar baterako baimena baliatzeko; alabaina,

langile autonomoek nahiz besteren konturakoek, Administrazioan lan egiten ez dutenean, ez daukate eskubide hori, eta horrelako baimenik ez izatea problema larriak sortzen ari zaie familiei lana eta familiako bizitza uztartzeko eta adingabeen eta/edo mendekoen gaineko ardura hartu ahal izateko. Kasu batzuetan, uztarketa egitea erabat ezinezkoa gertatzen zaie.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak 48. artikuluan jasotzen du lan egin beharra dagoela bateragarritasuna bultzatzeko. Zehazki, 1. puntuak dio ezen administrazio publikoek aldaketa-prozesuak sustatu behar dituztela antolaketaren eremuan, bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko.

Pandemiak ugaritu egin ditu bateragarri egiteko zailtasunak, eta administrazioei dagokie neurri urgente eta eraginkorrek bilatzea, pandemia-une hauetan bateragarritasuna erraztuko dutenak.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Ekonomia eta Gizarte Kontseiluarekin batera lan egitera, non ordezkatuta baitaude zenbait eragile sozial eta ekonomiko, besteak beste sindikatuek eta enpresaburu-elkarteak, plan urgente bat prestatzeko, familiei gizarte- eta lan-estaldura eman ahalko dieten neurriak jasoko dituen, COVIDagatik bakartuta dauden adingabeen eta mendeko pertsonen zaintza-lanei ekin ahal izateko.

– Berriazko laguntza ekonomikoak sor edo badaudenak zabalagotu ditzan, hori beharrezkoa denean langile autonomoen edo besteren konturakoek bateragarritasuna errazteko, haiek lanetik kanpo egon behar izanez gero COVIDarengatik berrogeialdian egotera beharturiko adingabeak eta/edo mendeko pertsonak zaintzeko.

Iruñean, 2021eko abenduaren 27an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bipil errefusatzeko erakunde politikoko demokratikoei, haien egoitzei eta kideei zuzendutako indarkeriaren, larderiaren eta mehatxuen erabilera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bipil errefusatzeko erakunde politikoko demokratikoei, haien egoitzei eta kideei zuzendutako indarkeriaren, larderiaren eta mehatxuen erabilera; adierazten du zero tolerantziako konpromisoa duela pertsonen eta erakundeek politikan libreki jardutearen aurkako edozein erasoren aurrean; eta dei orokor bat egiten dio gizarteari, intolerantziaren eta bestelako

pentzamoldea dutenenganako indarkeriaren aurkako fronte bateratua osa dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak bipil arbuiatzen eta errefusatzeko du Lizarrako herrian IUN-NEBen lokal baten aurka egin den eraso, eta bere solidaritate eta aldekatutasuna agertzen die herri horretako IUN-NEBen afiliatu eta zaleei”. (10-22/DEC-00001).

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten baitu Tuterako bizilagun Sararen hilketa, eta bere elkartasuna adierazi nahi baitie hildakoaren familiari eta ingurune hurbilari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten du Tuterako bizilagun Sararen hilketa, eta bere elkartasuna adierazi nahi die hildakoaren familiari eta ingurune hurbilari une latz honetan.

2. Nafarroako Parlamentuak beste behin ere berresten du errefusatu eta gaitzetsi egiten duela gure gizartearen gerta daitekeen eraso, indarkeria nahiz jarrera sexistarok, eta konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten, segurtasuna hobetzen eta emakumeek ingurune orotan askatasun osoa baliatu ahal izatea bermatzen laguntzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak, erakunde publikoaren aldetik, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak tokian-tokian ezartzen dituen betekizunak betetzea bermatzeko konpromisoa hartzen du.

4. Nafarroako Parlamentuak gizarte osoari dei egiten dio emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria betiketuz duten rol eta estereotipo sexistetan oinarritutako kultur eredu aldaketa, bai eta indarkeria matxista errefusatzeko jarrai dezan eta indarkeria matxistetatik bizirik ateratzen diren emakumeei babesa ematen jarrai dezan ere.

5. Nafarroako Parlamentuak herritarrei gonbit egiten die ez daitezkeen ezer egin gabe gelditu emakumeen aurkako indarkeriaren eta erasoaren aitzinean, eta emakumeek segurtasunez eta askatasunez bizitzeko eskubidea dutela erreklamatzeko.

6. Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak elkarretaratzea egiten du ostegunean, urtarrilaren 13an, eguerdian, erakundearen atarian, hilketa hau beste behin gaitzesteko eta emakumeen kontrako indarkeria oro errefusatzeko. (10-22/DEC-00003)

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoari eta 2021erako plangintzari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoari eta 2021erako plangintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Zer dela-eta erabaki zuen Nafarroako Gobernuak, azaroan, gobernu-erabaki bat har-

tzea, garapen-sistema bat onesten zuena Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoarekin zerkusia duten azpiegituren plangintzarako, bai eta 2021erako plangintza ere? Ba al dago txostenik, ohartarazten duenik Departamentua legez kanpoko moduan ari zela zenbait azpiegitura finantzatzeko?

2. Erabaki horren 3. puntuak ezartzen du ezen, finantzatu beharreko inbertsioetarako, aintzat hartuko direla Dirulaguntzei buruzko Foru Legeko 17.2.a) artikuluan jasotako aurreikuspenak egoteagatik egiteko modukoak diren inbertsioak. Alegia: izendun partida bat egoteak esan nahi du zer azpiegitura finantzatuko diren erabakitzea Parlamentuaren esku dagoela, eta ez Plan Estrategikoak xedatzen duenaren esku?

3. Erabaki horretan onesten da 2021erako 8 azpiegituraren plangintza.

a) Azpiegitura horietako bakoitza Planeko zer ildo estrategikorekin lerrotatzen da?

b) Horietako bakoitzari dagokionez, zergatik aukeratu dira horiek eta ez antzeko beste batzuk?

4. Halaber, horietako bakoitzari buruz eskatzen da hasierako aurrekontua eta aurrekontu exekutatua.

Iruñean, 2021eko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, 2019-2023 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren 2021erako plangintzari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, 2019-2023 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren 2021erako plangintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

2021eko abenduaren 15eko Nafarroako Gobernuaren erabakiari dagokionez, zeinaren bidez 2021eko ekitaldirako zabalagotzen baita 2019-2023 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren plangintza, honako hau eskatzen da:

1. Erabaki horretan aurreikusitako bi azpiegiturako bakoitzerako:

a) Planeko zer ildo estrategikorekin lerrotatzen da?

b) Zergatik aukeratu da hori, eta ez antzeko beste batzuk?

2. Halaber, horietako bakoitzerako, eskatzen dira hasierako aurrekontua eta aurrekontu exekutatua, bai eta ordaintzeko erabili den aurrekontu-partida ere.

Iruñean, 2021eko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, joan den 2021eko abenduaren 22ko lehendakari-biltzarrean Nafarroak izandako jarrerari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, joan den 2021eko abenduaren 22ko lehendakari-biltzarrean Nafarroak izandako jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Pandemiaren kontrolari buruzko zer jarrera defendatu zuen Nafarroak joan den 2021eko abenduaren 22ko lehendakari-biltzarrean proposatu ziren neurrien aurrean?

2.- Zer neurri proposatu zituen Nafarroak abenduaren 22an egin zen bilkura horretan?

3.- Osasun Departamentuan ba al dago Nafarroak defendaturiko jarrerarako adituen txosten teknikorik, bilkura hori egin aurrekorik? Zein, norenak eta zer datatakoak?

4.- Zer dela-eta jarri zen Nafarroako Gobernu-ko lehendakaria biharamunean Euskadiko lehendakariarekin kontaktuan neurri murriztaileak adosteko? Zerk eragin zuen jarrera-aldaketa, lehendakariaren biltzarrak bezperan egin zuen bilkurakoarekiko?

5.- Zer ebidentzia zientifikok bermatzen du musukoa kanpoaldeetan eta segurtasun-distantzia gorderik ere erabiltzera behartzeko erabakia? Aintzat hartu al da horren ondorioz gerta daitekeela barnealdeetan musukoa jarrita eramatearen inguruko balizko lasaikeria bat? Ba al dago Osasun Departamentuko adituen txostenik, neurri horrekiko posizionatzen denik, onurei eta balizko arriskuei dagokienez? Zein, norenak eta zer datatakoak?

6.- Zer ebidentzia zientifikok aldeztu du COVID pasaportearen egungo egoeran, non erkidego-transmisioa eta txertatu-tasa handiak baitira, eta pertsona txertatuen arteko kutsatzea posible baita? Horrek eragin dezakeen segurtasun faltuaren inpresioa aintzat hartu al da? Ba al dago Osasun Departamentuko adituen txostenik, neurri horrekiko posizionatzen denik, onurei eta balizko arriskuei dagokienez? Zein, norenak eta zer datatakoak?

Iruñean, 2021eko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, datu ofizialetan autodiagnostiko-probak COVID-19ko kasu bezala jakinarazteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, datu ofizialetan autodiagnostiko-probak COVID-19ko kasu bezala jakinarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginturiko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Osasun Departamentuaren abenduaren 7ko protokoloa aplikatuz, harik eta abenduko azken astean aldatua izan zen arte:

1.- Datu ofizialetan COVID-19ko kasu bezala jakinarazi al dira farmazietan farmazeutikoen gainbegiradapean eginiko autodiagnostiko-proben emaitza positiboak?

2.- Farmazietan farmazeutikoen gainbegiradapean eginiko autodiagnostiko-proba positiboak sarturik al doaz Nafarroako Gobernuak bai bere

datuetan bai Osasun Ministerioari jakinarazten dizkionetan azaltzen dituen proba ofizialen kopuruan?

Abenduaren azken astean Osasun Departamentuak erabakitako protokoloak aplikatuz:

3.- Datu ofizialetan COVID-19ko kasu bezala jakinarazi al dira herritarrek eginiko eta zuzenean nahiz farmazien bitartez jakinarazitako autodiagnostiko-proben kasu positiboak?

4.- Herritarrek eginiko eta jakinarazitako autodiagnostiko-proba positiboak sarturik al doaz Nafarroako Gobernuak bai bere datuetan bai Osasun Ministerioari jakinarazten dizkionetan azaltzen dituen proba ofizialen kopuruan?

Iruñean, 2021eko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, COVID-19aren autodiagnostiko-proben emaitza positiboek jakinarazpenean Datuen Babesari buruzko Legea urratzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, COVID-19aren autodiagnostiko-proben emaitza positiboek jakinarazpenean Datuen Babesari buruzko Legea urratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cris-

tina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarrean Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak denbora igaro ahala ezarri dituen protokoloetan, herritarrei eskatzen zaie COVID-19aren autodiagnostikorako proben emaitza positiboak jakinaraz ditzaten, dela farmazia-sarearen bidez, dela antigenofarmacia@navarra.es posta elektronikoko helbidera.

Nafarroako Gobernuak konfirma al dezake ez dagoela datu-babeserako legearen urraketarik pertsona zehatzen izen-deituradun datu sanitarioak jakinarazteko posta elektronikoko zirkuitu bat erabiliz?

Nafarroako Gobernuak egin al dio kontsultarik Datuak Babesteko Agentziari, pertsona zehatzen izen-deituradun datu sanitarioak posta elektronikoko kontu baten bitartez erabiltzearen inguruan?

Iruñean, 2021eko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Europako funtsen kudeaketarako eratutako batzorde delegatuaren bilerei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Europako funtsen kudeaketarako eratutako batzorde delegatuaren bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da Europako funtsak kudeatzeko batzorde delegatua?

2.- Gobernuaren zer ordezkari eta beste nor hartu du parte bilera horietako bakoitzean?

3.- Zein izan da bilera horietako bakoitzeko gai-zerrenda?

Iruñean, 2021eko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Europako funtsen kudeaketarako eratutako konferentzia ekonomiko enpresarialaren bilerei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Europako funtsen kudeaketarako eratutako konferentzia ekonomiko enpresarialaren bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da Europako funtsak kudeatzeko konferentzia ekonomiko enpresariala?

2.- Gobernuaren zer ordezkari eta beste nor hartu du parte bilera horietako bakoitzean?

3.- Zein izan da bilera horietako bakoitzeko gai-zerrenda?

Iruñean, 2021eko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Estatuak Europako funtsen banaketan Nafarroari orain arte esleitutako 204 milioi euroen xehakapenari buruzkoa, departamentuen eta proiektuen arabera.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Estatuak Europako funtsen banaketan Nafarroari orain arte esleitutako 204 milioi euroen xehakapenari buruzkoa, departamentuen eta proiektuen arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

Zein da Estatuak Europako funtsen banaketan Nafarroari orain arte esleitutako 204 milioi euroen xehakapena, departamentuen eta proiektuen arabera?

Iruñean, 2021eko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan Europako funtsen kudeaketari begira egindako interes-adierazpenei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan Europako funtsen kudeaketari begira egindako interes-adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

1.- Nafarroako Gobernuak zenbat interes-adierazpen egin ditu legegintzaldi honetan Europako funtsen kudeaketari begira?

2.- Zer proiekturi lotuta egin ditu eta nori zuzenduak izan dira?

3.- Zenbat proiektu aurkeztu dira egin den horietako bakoitzean?

Iruñean, 2021eko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, departamentuak migratzaileen artean gaztelania edo euskara ikasteko 2021ean zehar abian jarri dituen programei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, departamentuak migratzaileen artean gaztelania edo euskara ikasteko 2021ean zehar abian jarri dituen programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Departamentuak zenbat programa jarri ditu abian 2021ean zehar migratzaileen artean gaztelania edo euskara ikasteko?

2.- Zer herritan eta zer hizkuntzatan jarri ditu abian?

3.- Zenbat pertsonak parte hartu du horietako bakoitzean?

4.- Administrazioko zer entitate edo zerbitzu arduratu da horiek gauzatzeko?

5.- Entitatea administrazioetik kanpokoan izan baldin bada, zer prozeduraren bidez aukeratu da?

6.- Zein izan da programen kostu osoa, guztien batera nahiz banaka?

Iruñean, 2021eko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik N-121-A errepidea, Endarlatsa eta Irun artean, hobetzeko lanen ezaugarriak eta jabetza-, erabilera- eta titulartasun-baldintzak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenean jasotako konpromisoari buruzkoa.

ISABEL OLABE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olabe Ballarena andreak aurkezturiko galdera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik N-121-A errepidea, Endarlatsa eta Irun artean, hobetzeko lanen ezaugarriak eta jabetza-, erabilera- eta titulartasun-baldintzak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenean jasotako konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

N-121-A errepidea Endarlatsa eta Irun artean hobetzeko lanen ezaugarriak eta jabetza-, erabilera- eta titulartasun-baldintzak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenean jasotzen denez, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio "ahalmena handitzeko egin beharreko jarduketak egitea, errepide horretako trafikoaren bilakaeraren arabera, betiere Nafarroako Gobernuak errepide horren kasuan dauzkan eskumenen esparruan egiten dituen jarduketekin koordinatuta". Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromiso hori noiz artekoa da?

Iruñean, 2021eko abenduaren 31n

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heldu diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko premia neurriak onesten dituen apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuaren xedapen gehigarri bakarra betetzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heldu diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko premia neurriak onesten dituen apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretua-

ren xedapen gehigarri bakarra betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

4/2021 Foru Lege-dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heldu diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko. Lehen xedapen gehigarrian –"Gardentasuna"– honako hau xedatzen da:

«Hiru hilez behin, Nafarroako Gobernuak agerraldia egingen du Nafarroako Parlamentuan, honako hauei buruzko argibideak emateko: zer proiektu aurkeztu dituen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari gehi dakizkion; nola aplikatu diren plan horretatik, Ekonomia Suspertzeko eta Eraldatzeko proiektu estrategikoetatik edo Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren ondorioz sortu eta Espainiako Gobernuak transferitutako beste edozein tresnetatik jasotako funtsak; zein izan den funts horiek banatzeko erabilitako deialdiak, hitzarmenak, kontratuak eta bestelako tresnak baliatzearen ebaluazioa; noraino bete diren funts horiekin eta horien askotariko aplikazioekin lortu nahi ziren helburuak; eta an-

tzeko beste datu eta agiri batzuk, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri dizkionak, hala zegokiolako, funts horien exekuzioarekin loturik.»

Ia lau hilabete joan dira 4/2021 Foru Lege-dekretua onetsi zenetik, eta Gobernuak ez du Parlamentuan agerraldirik egin xedapen gehigarri horretan jasotzen denari buruzko informazioa emateko; halere, Gobernuko departamentuetako arduradunek, bai eta Prentsa-kabineteak ere, ez dute inolako arazorik izan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Planetik heldu diren funtsen bidez finantzatu beharreko proiektuak eta gastuak behin baino gehiagotan iragartzeko.

Hori ikusirik, honako hau jakin nahi dut:

Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heldu diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuaren xedapen gehigarri bakarra betetze aldera, Gobernuak hiru hilean behin egin behar du agerraldia Parlamentuan. Gobernuak – lehendakariak nahiz kontseilarietako batek– noiz egingen du agerraldi hori Parlamentuan?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Gobernu Irekiaren Atarian Europako funtsen kudeaketari buruz informatzeko gune bat irekitzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Gobernu Irekiaren Atarian Europako funtsen kudeaketari buruz informatzeko gune bat irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Ekainaren 30eko 14/2021 Foru Legearen bidez xedapen gehigarri berri bat jaso zen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean; honako hau, hain zuzen ere: "Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratzeko Laguntzatik (REACT-EU) eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik (Next-EU) heldu diren Europako funtsen kudeaketari buruzko gardentasuna eta kontu-arrazoia ematea".

Xedapen gehigarri horretan honako hau xedatzen da:

«Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian gune bat irekiko da, informazio-sistema integral bat jasoko duena, eta bertan argitaratuko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta foru-sektore publiko instituzionalak Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratzeko Laguntzatik (REACT-EU) eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik (Next-EU) heldu diren Europako funtsen kudeaketari buruz duten informazio guztia. Horretaz gain, gune horretan proiektuen betetzeari eta lortutako emaitzei buruzko kontu-arrazoiak emanen dira».

Gobernuari xedatutakoa ezartzeko eman zitzaion sei hilabeteko epea agortzear badago ere, oraindik ere ez dakigu noiz sortuko duen Gobernuak gune hori, zeren eta galdera hau idatzi den egunean ez baita horri buruzko ezer jasotzen Gobernu Irekiaren Atarian. Halere, atari horretan jaso beharko ziratekeen hainbat ekitaldi egin izan ditu hilabeteotan Nafarroako Gobernuak, baina publizitaterik eta gardentasunik egon ez denez, ezin izan horien gaineko ezagutza zehatz eta ziu-rrik.

Jakin badakigu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak, Tracasa Instrumentalekin batera, enpresen homolgazio-prozesu berritzaile bat sortu duela, Administrazioa digitalizatzearen Europatik heldu diren funtsak kudeatzeko. Prentsa-ohar ofizial baten bidez oro-

bat jakin dugu ezen Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik heldu diren funtsen bidez finantzatutako proiektuak kudeatzeko eta horien jarraipena egiteko lehenbiziko araudia onetsi zuela Gobernuak urrian, halako moduan non kudeaketa-sistema bat abiaraziko baitzen, non islaturik geratuko bailirateke, mugarrien eta helburuen jarraipena dela-eta bete beharreko eskakizunez gain, proiektu bakoitzeko jarduketan aurrekontu-kudeaketa eta auditoretza ere, horrek kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko balioko lukeelako.

Gauzak horrela, galdera hauek egiten dira:

Gobernuak ba al du asmorik ekainaren 30eko 14/2021 Foru Legean ezartzen den sei hilabeteko epean irekitzeko Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian gune bat, informazio-sistema integral bat jasoko duena, eta zeinean argitaratuko den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta foru-sektore publiko instituzionalak Europako funtsen kudeaketari buruz duten informazio guztia?

Gobernuak nahiz Foru-sektore publikoak gaur arte hartutako zer erabaki edo administrazio-egintza jaso behar zituzkeen gune horretan, baldin eta gune hori Gobernu Irekiaren Atarian irekita egon izan balitz?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ponentzia, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren.

TXOSTENA BUKATZEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adosteko Ponentziak 2021eko abenduaren 20an harturiko erabakia, zeinean eskatzen baitzen ponentziaren lanak amaitzeko epea luzatzea hurrengo bilkuraldian bukatze aldera, honako hau ERABAKI DA:

1. Ponentziaren txostena bukatzeko epea 2022ko ekainaren 30era arte luzatzea. (10-21/PON-00003).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2021eko abenduaren 29ko erabakiaren bidez, Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa igorri dio Nafarroako Parlamentuari, iritzia eman dezan.

Horrenbestez, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduaren 202. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa izapidetzeko onartzea (10-21/CDP-00011).

2. Xedatzea hari buruzko erabakia Herritarreko Harremanetako Batzordeak hartuko duela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

(Oharra: plana Nafarroako Parlamentuko webgunean kontsulta daiteke:

<https://www.parlamentodenavarra.es/es/contenido/documentos>)

